

NAIDER BEHATOKIA: EUSKADIKO DIAGNOSTIKO TERRITORIAL INTERAKTIBOA

Posted on 12/09/2025 by Naider

Category: [Albistea](#)

Tags: [Analisi tresnak](#), [Grafiko dinamikoak eta mapa tematikoak](#), [NAIDER Behatokia](#)

Jada gure webgunean eskuragarri dago [NAIDER Behatokia](#), Eusko Jaurlaritzako Udalmap sistema ofizialetik eratorritako 120 adierazle baino gehiago aztertzeako aukera ematen duen panel interaktiboa. Analisi bisualeko tresna honen bidez, lurraldearen errealitate sozioekonomikoa aztertu, alderatu eta ulertu daiteke, probintzia, eskualde eta udalerri mailan.

Panelek lurraldearen ikuspegi argia eta egituratua eskaintzen du, grafiko dinamikoen eta mapa tematikoen bidez. Honek datuen ulermena errazten du eta erabakiak hartzeko prozesua laguntzen du. Administrazio publikoentzat, tokiko eragileentzat eta lurralde-analisiaren arloko profesionalentzat diseinatuta dago, zehaztasun teknikoa eta erabilerraztasun aurreratua uztartuz.

NAIDER Behatokia automatikoki konektatzen da Udalmapen datu-baseetara bere APIaren bidez, eta informazioa egituratu eta erlazionatzen du gertakari-taulen bidez. Horrela, metrika aurreratuak eta narrazio adimendunak sortzen dira. Bere ezaugarrien artean daude udalerri eta eskualdeen arteko alderagarritasuna, azken urteetako datuetan oinarritutako etorkizuneko proiektzioak, batez besteko ponderatuak eta datuen segmentazio-parametroak, adierazleak eta lurraldeak pertsonalizatzeko aukera ematen dutenak.

Arakatu NAIDER Behatokia eta bihurtu datuak ekintzarako ezagutzan: